

ARKITEKTURAK I - KAMIO BASERRIA

2019ko *Arkitekturak I* erakusketan aurkeztu nuen azken proiektua Asteasuko Kamio Baserrian kokatzen da eta 2005-2007an gauzatu genuen. Bultzatzailea errementari bat izan zen, Juantxo Garmendia, arkitektoa, berriz, Xabier Arruabarrena (lehendik ere aritua nintzen berarekin elkarlanean). Materialei dagokionez, hormigoia, kristala eta burnia erabili genituen.

Garmendia errementariak amets bat zuen. Bere baserri ondoan, oso gertu bere etxe kantoitik, baziren arbola batzuk. Lehenengo solairuan bizi zen. Teilatu azpian, ganbara aldera, txoko bat zeukan eta bere ametsa hor leiho bat eraikitzea zen izarrak ikusteko. Nahi izanez gero, etzanda egoteko ilargiari begira eta posible baldin bazen, hortik balkoi bat izatea pasarela batekin arboletaraino helduko zena, erramu eta haritzetaraino.

Hasi nintzen pentsatzen, amesten, proiektuaren gainean. Erronka zen. Lehenik, kantoia goiko partean kendu eta bertan kristalezko prisma bat kokatzea erabaki genuen. Ordurako hasia nintzen *Etxeak* eta beste serie batzuk lantzen eta ideia horrek bazuen zerikusia honekin guztiarekin. Bigarrenik, etxe atzekaldeko fatxadan ere beste leiho handi bat irekiko genuen argia sar zedin. Erretaulen erreferentzia gogoan, lau pusketatan bezala osatu genuen leiho hori, hormigoiez.

Esan bezala, errementariak etzanda egoteko espazioa ere eskatu zuen, halako zulo edo tarte batzuk; eta niretzako hori oso kreatiboa izan zen. Izan ere, leiho hori aztertzeaz haratago, leiho dinamikaren inguruko ikerketa batzuk sortzera eraman ninduen, eta baita konstrukzioaren edo dekonstrukzioaren aukera berriak ezagutzera ere.

Behin betiko proiektura heldu baino lehen, maketa asko egin genituen. Sinplifikazio prozesu baten ondotik etorri zen azken emaitza: ez baitzen erraza zenbait egitura Kamio baserrian (karga-murruak dituen gero) kokatzea.

Azkenean, bi elementu horiekin (kantoiko prisma eta atzekaldeko leiho handia) osatu nuen etxea. Ni sortu eta marrazteaz arduratu nintzen. Xabier

Arruabarrenarena berriz, kalkulutan-eta hori dena jartzeaz. Proiektua aurrera atera eta gauzatu zen. Gaur egun ikus daiteke.

Errementaria oso kontentu geratu zen. Eta, esan genezake, harrezkero izarrak ikusteko aukera duela.

Berriz ere, esperientzia edo ikasketa prozesu emankorra izan zen. Proiektua garatu ahala, hamaika egiteko modu, planteamendu, aukera... berri eta ezberdin ireki zitzaizkidan aurrean. Hala ere, jakina, sormenaren erdian bazen aintzat izan beharreko baldintza bat: nola eta noraino landu norbaiten bizileku den proiektua egunerokotasun horretan dabilenari bizitza konplikatu gabe [barre artean].

ARQUITECTURAS I - CASERÍO KAMIO

El último proyecto que presenté en la exposición *Arkitekturak I* de 2019 se sitúa en el Caserío Kamio de Asteasu y se realizó en 2005-2007. El impulsor fue un herrero, Juantxo Garmendia, mientras que el arquitecto fue Xabier Arruabarrena (con el que ya había colaborado anteriormente). En cuanto a los materiales, utilizamos hormigón, cristal y hierro.

El herrero Garmendia tenía un sueño. Junto a su caserío, muy cerca de la esquina de su casa, había algunos árboles. Vivía en el primer piso. Bajo el tejado, hacia el desván, tenía un rincón y su sueño era construir ahí una ventana para ver las estrellas. Si quisiera, para tumbarse mirando la luna y si era posible, que de ahí saliese un balcón que con una pasarela llegase hasta los árboles, hasta los laureles y los robles.

Empecé a pensar, a soñar, sobre el proyecto. Era un reto. Primero decidimos quitar la esquina en la parte superior y colocar en ella un prisma de cristal. Para entonces ya había empezado a trabajar *Etxeak* (Casas) y otras series y esa idea tenía que ver con todo esto. En segundo lugar, en la fachada trasera de la casa pensamos

abrir también otra gran ventana para que entrara la luz. En referencia a los retablos, formamos esta ventana de hormigón como en cuatro tramos.

Como se ha dicho, el herrero pidió también un espacio para estar tumbado, ciertos agujeros o tramos; y eso para mí fue muy creativo. De hecho, más allá de estudiar esta ventana, me llevó a crear unos estudios en torno a la dinámica de ventanas y también a conocer las nuevas posibilidades de la construcción o deconstrucción.

Antes de llegar al proyecto definitivo, hicimos muchas maquetas. El resultado final fue un proceso de simplificación, ya que no era fácil ubicar algunas estructuras en el caserío Kamio (al tener muros de carga).

Por fin, con estos dos elementos (el prisma de la esquina y la gran ventana de atrás) formé la casa. Yo me encargué de crear y dibujar. Xabier Arruabarrena, por su parte, se encargó de concretar esas ideas. El proyecto salió adelante y se ejecutó. Se puede ver en la actualidad.

El herrero quedó muy satisfecho. Y, podríamos decir, que desde entonces tiene la oportunidad de ver las estrellas desde ese prisma formidable.

De nuevo, fue una fructífera experiencia o proceso de aprendizaje. A medida que se desarrolló el proyecto, se me fueron abriendo un sinfín de formas de hacer, de planteamientos, de alternativas nuevas y diferentes. Sin embargo, claro está, en medio de la creatividad había una condición a tener en cuenta: cómo y hasta dónde trabajar el proyecto sin complicar el uso de la vivienda [entre risas].

ARCHITECTURES I - KAMIO FARMHOUSE

The last project I presented at the 2019 *Arkitekturak I* exhibition is located at the Kamio Farmhouse in Asteasu and was carried out in 2005-2007. The promoter was a blacksmith, Juantxo Garmendia, while the architect was Xabier Arruabarrena (with whom I had previously collaborated). As for the materials, we used concrete, glass and iron.

The blacksmith Garmendia had a dream. Next to his farmhouse, very close to the corner of his house, there were some trees. He lived on the first floor. Under the roof, towards the attic, he had a corner and his dream was to build a window there to see the stars. If he wanted to, to lie down looking at the moon and if possible, to have a balcony from there with a footbridge to the trees, to the laurels and the oaks.

I began to think, to dream, about the project. It was a challenge. First we decided to remove the corner at the top and place a glass prism on it. By then I had already started working on *Etxeak* (Houses) and other series and that idea had to do with all this. Secondly, on the back façade of the house we thought of opening another large window to let in the light. In reference to the altarpieces, we formed this concrete window as in four sections.

As has been said, the blacksmith also asked for a space to lie down, certain holes or sections; and that was very creative for me. In fact, beyond studying this window, it led me to create some studies around the dynamics of windows and also to know the new possibilities of construction or deconstruction.

Before arriving at the final project, we made many models. The final result was a process of simplification, since it was not easy to locate some structures in the Kamio farmhouse (as it had load-bearing walls).

Finally, with these two elements (the prism in the corner and the big window in the back) I formed the house. I was in charge of creating and drawing. Xabier Arruabarrena's, on the other hand, passed all that on to calculations. The project went ahead and was executed. You can see it today.

The blacksmith was very satisfied. And, we could say, that since then he has had the opportunity to see the stars.

Again, it was a fruitful experience or learning process. As the project developed, a multitude of new and different ways of doing things, approaches and alternatives opened up for me. However, of course, in the midst of the creativity there

was a condition to take into account: how and how far to work on the project without complicating the use of the house [he laughs].